

KONTROL MOZIOA

ANTENEN ORDENANTZA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko martxoaren 14an Lurralde eta Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatzak, 2015eko apirilaren 30ean egindako osoko bilkuran, telekomunikazio sareen instalazio erradio-elektrokoak arautzeko ordenantzari hasierako onespina eman zion; hain zuzen, Antenarik Ez plataformak, 7.000 donostiarren sinaduren babesarekin luzatu zuen eskaerari erantzunez. Jarraian, alegazio epea ireki zen eta bai herri elkarteek, bai telefonia operadoreek alegazioak aurkeztu zituzten.

Baina 8 hilabete pasatu diren arren, alegazioek oraindik ez dute erantzunik jaso eta ez da ordenantzaren izapidearekin jarraitu, tartean eta ordenantza behin behinekoz onartua egon arren, 2015eko azaroan Udal Gobernuak Telekomunikazioen Estatu Idazkaritzari txostena egiteko eskaera luzatu ziolako. Berriki, Udalak txosten hori jasota, irakurri ahal izan dugu Udal Gobernuak ordenantzaren izapidea bera ere ezbaian jartzen ari dela.

Uste dugu jarrera horrek ez duela bat egiten Udalbatzaren 2013ko otsaileko osoko bilkuran eta 2016ko otsaileko bozeramaileen batzordean talde politiko guztiok aho batez onartu genuen adierazpenarekin, non espresuki Europar Batzordeko 1815 ebazpenaren osasun gomendioak gure egin genituen eta 2014ko estatuko telekomunikazioen lege orokor berria arbuia genuen.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jarrai dezala telekomunikazio sareen instalazio erradio-elektrokoen ordenantzaren izapidearekin eta alegazioak erantzun ditzala aintzat hartuta 7.000 donostiarrek egindako eskaera eta prekauzio printzipioak jasotzen dituen 1815. europar ebazpenak egindako gomendioak; batik bat, emisio-potentziei eta eremu sentikorrei dagokionez.

Donostian, 2016eko martxoaren 17a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia